

## ZARAUZKO ESKOLEN ARTEKO FOROA

### Bileraren akta

#### EGUNA, ORDUA ETA LEKUA:

- 2018ko Apirilak 18, asteazkena, goizeko 9:30tan.
- Aritzbatalde Kiroldegia.

#### PARTAIDEAK:

##### Ikastetxeak:

- Salbatore Mitxelena Ikastola, Joxean Elola irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 4 eta DBHko 2).
- Antoniano Ikastetxea, Ixiar Leunda irakasle koordinatzailea eta 6 ikasle ordezkari (LHko 4 eta DBHko 2).
- Orokieta Herri Eskola, Silvia Martinez irakasle koordinatzailea eta LHko 6 ikasle ordezkari.
- La Salle Ikastetxea, Patxi Pagola irakasle koordinatzailea eta 8 ikasle ordezkari (LHko 2 eta DBHko 6).
- Lizardi Institutua, Alberto Garate irakasle koordinatzailea eta DBHko 6 ikasle ordezkari.
- Oteitza Lizeoa, Ainhoa Mateos irakasle ordezkaria eta 3 ikasle ordezkari.

##### ARAZI:

- Eneko Salaberria
- Nerea Ibañez

#### GAI-ZERRENDAA:

##### 1. Sarrera:

- Eskolako Agenda 21ean emandako pausuak azaldu.
- Hurrengo urratsak aurkeztu.
- Foroaren lan-dinamikak azaldu, bileraren helburuak zehaztuz.

##### 2. Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenen aukeraketa eta banaketa:

- Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lan-dinamika.
- Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lan-dinamika.

##### 3. Eskolako Agenda 21, 2017-2018 ikasturteko ekintza aipagarrienak (gustukoak, hobekuntzak...) ikasleen hitzetan.

##### 4. Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamen eta konpromisoen lanketa:

- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek elkarlanean proposamenak lantzeko ereduak osatu.

### BILERAREN BILAKAERA:

Parte-hartzaile guztiei ongi etorria eman ondoren Araziko ordezkariak aurkezpena egin du, bileraren helburuak azalduz. Jarraian, Eskolako Agenda 21 programaren barne 2017-2018 ikasturtean zehar emandako pausuak gogoratu dira, eta hurrengo urratsak aurkeztu dira.

Behin bileraren testuingurua azalduta eta helburuak zehaztuta, Lehen Hezkuntzako ikasleek Lehen Hezkuntzatik jasotako proposamen guztien arteko aukeraketa eta banaketa egiteari ekin diote. Era berean, aretoaren beste eremu batean, ikasle helduenek (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) Bigarren Hezkuntzatik, Batxilergotik eta Lanbide Heziketatik jasotako proposamen guztien arteko aukeraketa eta banaketa egiteari ekin diote.



### Lehen Hezkuntzako ikasleek buruturiko lana:

Lehen Hezkuntzatik 16 ordezkari izan dira bileran: Orokieta Herri Eskolako 6 ikasle, Salbatore Mitxelena Ikastolako 4 ikasle, Antoniano Ikastetxeko 4 ikasle eta La Salle ikastetxeko 2 ikasle. Eskola ezberdinetako ordezkariak talde berean egon dira, eta talde bakoitzean eskola bereko bi kide mantendu dira. Jarraian, taldeen egitura zehazten da:

- a. LH 2. Zikloko Orokieta HEko 2 ikasle eta Salbatoreko 2 ikasle.
- b. LH 2. Zikloko Orokieta HEko 2 ikasle eta Antonianoko 2 ikasle.
- c. LH 3. Zikloko Orokieta HEko 2 ikasle eta La Salleko 2 ikasle.
- d. LH 3. Zikloko Salbatoreko 2 ikasle eta Antonianoko 2 ikasle.

Talde bakoitzari proposamenak eskuratu zaizkio, gaika antolatuta (gai bakoitzeko kolore bat):

#### HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEKO

1. **PLASTIKOZKO POLTSAK KENDU ETA HARIZKOAK EDOTA OIHALEZKOAK JARRI.** KONPROMISOA: EZ DUGU BOTAKO ZABORRA LURRERA .
2. **EROSKETAK EGITERAKOAN JENDEAK PLASTIKOZKO POLTSAK GUTXIAGO ERABILTZEKO BIDEAK JARTZEA ETA POLTSA BIODEGRADAGARRIAK ERABILTZEA.** KONPROMISOA: PAKETE HANDIAK EROSI ETA ONDOREN TUPERRAK ERABILI. ADIBIDEZ, GAILETA POLTSA INDIBIDUALAK EROSI ORDEZ, PAKETE HANDIAK EROSI ETA ONDOREN, TUPERRAK ERAMAN IKASTETXERA.
3. HONDARTZAN IKUSTEN DEN ZABORRA AZTERTU ONDOREN KONTURATU GARA AGERI DIREN HONDAKIN UGARIENAK PLASTIKOAK DIRELA. BERAZ: **PLASTIKOZKO POLTSEN ERABILERA MURRIZTEA. DEBEKATZEA. EZ EKOIZTEA GEHIAGO. ORDEZKO POLTSEN ERABILERA SUSTATU KANPAINEN BIDEZ. BIZILAGUNEI EROSKETAK EGITEKO ORDEZKO POLTSATXOAK ESKAINI.** KONPROMISOA: PLASTIKOZKO BILGARRIRIK GABEKO PRODUKTUAK KONTSUMITU. BERTAKO SASOIKO PRODUKTU OSASUNTSUAK.

#### HONDAKINAK ONDO JASOTZEKO

1. SALBIDE PARKEAN ERREFUSERAKO ONTZIAK DAUDE BAKARRIK ETA ZABOR ASKO DAGO LURREAN, ZIGARROKINAK BARNE. BERAZ: **GURE PROPOSAMENA SALBIDE PARKEAN ZABORRAK SAILKATZEKO ONTZIAK JARTZEA LITZATEKE.** KONPROMISOA: HAMAIKETAKO GARAIA HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEKO BEHIN ETA BERRIZ ERABILI DAITEZKEEN TUPERRAK, POLTSAK, ....ETAB. ERABILIKO DITUGU.
2. **PARKEETAN (LAGUNAK, TORRE LUZEA, VILLA MUNDAKOAK, SALBIDEKOA... ) EDUKIONTZI DESBERDINAK JARTZEA ETA DENAK ELKARREN ONDOAN.** KONPROMISOA: ZABORRAK EDUKIONTZI EGOKIETARA BOTATZERA KONPROMETITZEN GARA. KALEAK TXUKUN MANTENDUKO DITUGU ETA ZAKARRONTZIAK GEHIAGO ERABILIKO DITUGU.
3. PARKEETAKO ZABORRAK BEREIZTEKO ONTZIAK ASKOTAN BETEAK EGOTEN DIRA. BERAZ: **PARKEETAKO ZAKARRAK BEREIZTEKO ONTZI HAUEK MAIZAGO HUSTEA PROPOSATZEN DUGU.** KONPROMISOA: GURE ALDETIK, ZABORRIK LURRERA EZ BOTATZEKO ETA DAGOKION ONTZIAN UZTEKO KONPROMISOA HARTZEN DUGU. ESKOLARA EKARTZEN DUGUN HAMAIKETAKOAK AHALIK ETA HONDAKIN GUTXIEN SORTZEKO SAIKERA ERE EGINGO DUGU.
4. SORTZEN DIREN HONDAKIN GUZTIAK ONGI SAILKATZEAREN GARRANTZIAZ JABETU GARA. BERAZ: **GURE PROPOSAMENA HONDAKINEN SAILKAPENA AREAGOTZEA DA, BAI ESKOLAN, ETXEAN EDO HERRIAN.** KONPROMISOA: PLASTIKOAK ERABILI BEHARREAN KRISTAL GEHIAGO ERABILTZEA IZANGO DA.

#### HERRITARREI AZALTZEKO

1. HONDARTZAN IKUSTEN DEN ZABORRA AZTERTU ONDOREN KONTURATU GARA AGERI DIREN HONDAKIN UGARIENAK PLASTIKOAK DIRELA. BERAZ: **IKASTETXEETAN ETA KOMUNIKABIDEETAN, ORO HAR, PLASTIKOZKO POLTSEN ORDEZKOAK ERABILTZEKO BEHARRA JAKINARAZI.** KONPROMISOA: OIHALEZKO POLTSAK, EROSKETA ORGA... ERABILI GURE EROSKETETAN.

2. HONDARTZAN IKUSTEN DEN ZABORRA AZTERTU ONDOREN KONTURATU GARA AGERI DIREN HONDAKIN UGARIENAK PLASTIKOAK DIRELA. BERAZ: **BIZILAGUNAK PLASTIKOZKO POLTSEN ARAZOAZ KONTZIENTZIATU**. KONPROMISOA: HAMAIKETAKOAK, GAILETAK ETAB... PLASTIKOZKO BILGARRIRIK GABEKOAK KONTSUMITU. FRUTAREN KONTSUMOA AREAGOTU.
3. HONDARTZAN IKUSTEN DEN ZABORRA AZTERTU ONDOREN KONTURATU GARA AGERI DIREN HONDAKIN UGARIENAK PLASTIKOAK DIRELA. BERAZ: **SENTSIBILIZAZIO KANPAINA GEHIAGO EGIN (HONDARTZA, MENDIA GARBITU...)**. KONPROMISOA: OGITARTEKOAK BILTZEKO ALUMINIOZKO PAPERA EZ DUGU ERABILIKO. OIHALEZKO POLTSATXOAK ERABILIKO DITUGU (BOKANROLA).
4. HONDARTZAN IKUSTEN DEN ZABORRA AZTERTU ONDOREN KONTURATU GARA AGERI DIREN HONDAKIN UGARIENAK PLASTIKOAK DIRELA. BERAZ: **BIRZIKLATZEAREN BEHARRA ALDARRIKATU KOMUNIKABIDEETAN GIZARTEAK KONTZIENTZIA HAR DEZAN**. KONPROMISOA: ONTZI ARINAK ETA PLASTIKOZKO POLTSAK BIRZIKLATU EGINGO DITUGU.

#### BESTE BATZUK

1. HONDAKINEK OSASUNA ETA NATURA ARRISKUAN JARTZEN DUTE. BERAZ: **GURE PROPOSAMENA DA KONPOSTA BOTATZEKO TXARTELAK EDOZEIN ONTZI IREKITZEKO BALIO IZATEA**. KONPROMISOA: HONDAKINAK ONDO SAILKATZEN AHALEGINTZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUGU.
2. DENOK SORTZEN DITUGU HONDAKINAK. ONDORIOZ, DENON ARDURA IZANGO DA GAI HONETAN AURRERA PAUSOAK EMATEA. BERAZ: **ZERGAK MURRIZTU BIRZIKLATZEN DUTENEI**. KONPROMISOA: OIHALEZKO POLTSAK ERABILI EROSKETAK EGITERAKOAN.
3. **HERRIKO BERDEGUNEAK MANTENTZEA**. KONPROMISOAK: ONDO BIRZIKLATUKO DUGU. GAUZA BAKOITZA DAGOKION EDUKIONTZIRA BOTAKO DUGU.
4. **IRISTEN EZ DIRENENTZAT (SILA GURPILDUNETAN DABILTZANAK, HAURRAK...) ZABORONTZI EGOKIAK JARTZEA**. KONPROMISOA: BERRERABILI EZIN DAITEKEENA ZABORRA IZANGO DA, BAINA ONDO SAILKATUKO DUGU BIRZIKLATU AHAL IZATEKO: ORGANIKOA, PAPER ETA KARTOIA, BEIRA, OLIOA, ONTZI ARINAK, PILAK...

#### ESKOLAN EDO NORBERAK EGITEKOAK

1. IKASTETXEKO PATIOAN ZABOR ASKO DAGO LURRETIK BOTATA. BERAZ: **GURE PROPOSAMENA ESKOLAKO PASILLOETAN ORGANIKOAREN ONTZIAK JARTZEA LITZATEKE**. KONPROMISOA: ZABOR GUTXIAGO SORTZEN SAIATU ETA ONDOREN ZABORRAK ONGI SAILKATZEA IZANGO DA.
2. USTE GENUEN BAINO ZABOR GEHIAGO SORTZEN DUGU ETA PRODUKTU BAKOITZA SORTU EDO EKOIZTEKO PROZESUAZ EZ GINEN JABE. BERAZ: **GURE PROPOSAMENA ESKOLAN HONDAKIN ORGANIKOAK SAILKATZEKO ONTZIAK GEHITZEA DA, ESATERAKO, PASILLO ETA GELETAN**. KONPROMISOA: ESKOLAN ZEIN ETXEAN ARDURA TXIKIAK HARTZEA IZANGO DA HONDAKINEN SAILKAPENA AREAGOTZEKO.

3. HONDAKIN ASKO SORTZEN DUGU, GEHIENAK ONTZI ARINEN MOTATAKOAK. GAINERA, HONDAKIN MOTA HAU OSO KUTSATZAILEA DA. BERAZ: **AHALIK ETA PLASTIKO GUTXIEN DITUZTEN JANARIAK EROSTEA DA.** KONPROMISOA: GURASOEI GURE PROPOSAMENAK KONTATZEA.
  
4. HAMAIKETAKOA PLASTIKOAN BILDUTA EKARTZEN DUGU, GEHIENETAN, ETA ONTZI HORIAK BETETZEN ZAIZKIGU. BERAZ: **HAMAIKETAKOA TUPERREAN EDO BERRERABILI DAITEZKEEN ZORROETAN EKARTZEA PROPOSATZEN DUGU, ETA BAITA BILDUKI GUTXIEN DUTEN PRODUKTUAK EROSTEA ERE.** KONPROMISOA: HAMAIKETAKOA BERRERABILTZEKO ZORROETAN EKARTZERA: TUPERRETAN, PAPEREAN BILDUTA...


GAINERA, KOMENTATZEKO:


ITSASOA KUTSATZEN DUGU ETA ANIMALIAK HILTZEN DIRA (...). GURE **KONPROMISOA** EROSKETAK EGITERAKOAN GURE POLTSAK, TUPERRAK , ETAB... ERAMATEA IZANGO DA.


Gai bakoitzeko proposamen bat aukeratzea adostu da, norberak bere lehentasunak zehaztu eta gainontzeko taldekideekin eztabaidatu ondoren. Gai bakoitzeko proposamenak kolore ezberdin batekin eskaini zaizkio ikasle guztiei.

Hasiera batean, norberak bere aukeraketa pertsonala egin du, eta gai bakoitzeko proposamen bat aukeratu ondoren gutunazalean sartu du. Gai guztien inguruan banakako aukeraketa egin ondoren, gutunazalak ireki dituzte. Taldeko partaide bakoitzak gutunazal baten ardura izan du: aukeratutako txartelak aztertu ondoren, gehien errepikatzen zena mural batean itsatsi dute.

Berdinketa izanez gero edo 4 txartel ezberdin ateraz gero adostasunera iritsi dira solasaldiaren bitartez. Adostasuna lortu ezean, bi proposamenen arteko nahasketa idazteko aukera luzatu da.







Hona hemen gai bakoitzaren inguruan aukeratu diren proposamenak:

Gaia	Talde bakoitzaren lehentasunak				EAFan egindako aukeraketa	Ikastetxeen arteko banaketa
	1 taldea	2 taldea	3 taldea	4 taldea		
<b>A. Hondakinen sorrera murrizteko</b>	3	3	3	2	<b>3</b>	<i>Antoniano</i>
<b>B. Hondakinak ondo jasotzeko</b>	3	3	2	2	<b>3+2</b>	<i>Orokieta</i>
<b>C. Herritarrei azaltzeko</b>	3	3	4	4	<b>3+4</b>	<i>La Salle</i>
<b>D. Beste batzuk</b>	2	2	2	4	<b>2</b>	<i>Salbatore</i>

Jarraian, ikastetxe bakoitzari egokitutako proposamena/k zehazten dira:

### ANTONIANO IKASTETXEA

- PROPOSAMENA

Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugariak plastikoak direla.

Beraz: **plastikozko poltsen erabilera murriztea. Debekatzea. Ez ekoiztea gehiago. Ordezko poltsen erabilera sustatu kanpainen bidez. Bizilagunei erosketak egiteko ordezko poltsatxoak eskaini.**

Konpromisoa: plastikozko bilgarririk gabeko produktuak kontsumitu. Bertako sasoiko produktu osasuntsuak.

### OROKIETA HERRI ESKOLA

- PROPOSAMENA

Parkeetako zaborrak bereizteko ontziak askotan beteak egoten dira.

Beraz: **parkeetako zakarrak bereizteko ontzi hauek maizago hustea proposatzen dugu.** Bestetik, **parkeetan (Lagunak, Torre Luzea, Villa Mundakoa, Salbidekoa... ) edukiontzi desberdinak jartzea eta denak elkarren ondoan.**

Konpromisoa: gure aldetik, zaborrik lurrera ez botatzeko eta dagokion ontzian uzteko konpromisoa hartzen dugu. Eskolara ekartzen dugun hamaiketakoak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko saiakera ere egingo dugu. Zaborrak edukiontzi egokietara botatzera konprometitzen gara. Kaleak txukun mantenduko ditugu eta zakarrontziak gehiago erabiliko



ditugu.

### LA SALLE IKASTETXEA

- PROPOSAMENA

Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugarietak plastikoak direla.

Beraz: **sentsibilizazio kanpaina gehiago egin**. Esaterako, **hondartza eta mendia garbitu, eta birziklatzearen beharra aldarrikatu komunikabideetan gizarteak kontzientzia har dezan**.

Konpromisoa: ogitartekoak biltzeko aluminiozko papera ez dugu erabiliko. Oihalezko poltsatxoak erabiliko ditugu (bokanrola). Ontzi arinak eta plastikozko poltsak birziklatu egingo ditugu.

### SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- PROPOSAMENA

Denok sortzen ditugu hondakinak. Ondorioz, denon ardura izango da gai honetan aurrera pausoak ematea.

Beraz: **zergak murriztu birziklatzen dutenei**.

Konpromisoa: oihalezko poltsak erabili erosketak egiterakoan.

Proposamenak aukeratu eta ikastetxeen artean banatu ondoren, udalbatzarrean aurkeztuko den txantiloia banatu da, ikasle ordezkariak osatu ahal izateko. Modu berean, formatu digitalean banatu da proposamena eta konpromisoa zehaztu eta irudi edo grafikoekin osatzeko.

HONDAKINAK  
Urola Kostako Eskolako Agendia 21  
2017-2018 ikasturtea

**P**  
**K**

PROPOSAMENA

KONPROMEZUA

Icon of a hand holding a coin and a pencil.

HONDAKINAK  
Urola Kostako Eskolako Agendia 21  
2017-2018 ikasturtea

**P**  
**K**

PROPOSAMENA

KONPROMEZUA

Icon of a hand holding a coin and a pencil.

Ondoren, 2017-2018 ikasturteko Eskolako Agenda 21 proiektuan zehar izandako ekintza gustukuenak eta proposaturiko hobekuntzen inguruan galdetu zaie ikasleei, proiektuaren balorazioa egiteko momentuan haien iritzia ezinbestekoa baita.



### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek buruturiko lana:

Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 19 ordezkari izan dira bileran: Salbatore Mitxelena Ikastolako 2, Antoniano Ikastetxeko 2, La Salle Ikastetxeko 6, Lizardi Institutuko 6 eta Oteitza Lizeoko 3. Lan-dinamikaren helburuen artean ikastetxe ezberdinetako ikasleak elkarlanean aritzea dagoenez, bost talde sortu dira.

Ikasle bakoitzari Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle guztiek sorturiko proposamen zerrenda luzatu zaio, bakarkako lanean lehentasunak finkatzea eskatuz (5 proposamenen aukeraketa). Ondoren, talde bakoitzari kolore ezberdinetako 6 gometx banatu zaizkio (gorria, 3 bozka; horia, 2 bozka; berdea, bozka 1).

Paretean proposamen zerrendak itsatsi egin dira, eta taldekako adostasuna lortu ondoren, aukeratutako proposamen bakoitzaren ondoan gometxa itsatsi dute. Araziko ordezkariak bozkak batu eta aukeraturiko 5 proposamenak jatorriari erreparatuz banatu dira.



Horrela, proposamen aukeratuak eta ikastetxeen arteko banaketa honakoa izan da:

#### SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

- Planeta zaintzen ez badugu gure ondorengoek ez dute bizi kalitate duina edukiko. Beraz: **gure proposamena da kontzientziaraztea burutzea herri mailan, eskoletan, enpresetan nahiz merkataritzan**. Konpromisoa: Gure aldetik, eskolan ahal dugun guztia birziklatzeko konpromisoa hartuko dugu.

*\*Lehen Hezkuntzan ere antzeko proposamen bat aukeratua izan denez, hari jarraika aurkeztuko dute Udaltzarrean Bigarren Hezkuntzakoek.*

#### ANTONIANO IKASTETXEA

- Hondakin kopurua murriztu egin behar da. Beraz: **Horretarako, herriko erosketetan oihalezko poltsak banatzea proposatzen dugu**. Konpromisoa: Gure aldetik, hamaiketarako aluminiozko eta plastikozko poltsen ordez, kantinplora eta tuperrak erabiltzera konprometitzen gara.

*\*Lehen Hezkuntzan ere antzeko proposamen bat aukeratua izan denez, hari jarraiki aurkeztuko dute Udaltzarrean Bigarren Hezkuntzakoek.*

### LA SALLE IKASTETXEA

- Erosketak egiteko momentuan edukiontzi gehiegi ematen dizkigute. Beraz: **Gure proposamena da Garbigunera eraman beharreko objektu txikiak jasotzeko lekuren bat jartzea herri barnean (CD, toner, bonbilla...)**. Konprometitzen gara gure familiak informatzera eta etxean birziklapena bultzatzera.

### LIZARDI INSTITUTUA

- Hondakin asko sortzen ditugu jendearen utzikeriagatik. Beraz: **Gure proposamena da birziklatzea derrigorrezkoa izatea eta hondakinak lurrera botatzen dutenei isunak jartzea. Beste herrialde batzuetan bezala, birziklatzen dutenei zergak jaitea ere proposatzen dugu.** Gure aldetik, bakoitzak gure ardurara eta gauzak berrerabiltzen saiatzeko konpromisoa hartzen dugu.

*\*Lehen Hezkuntzan ere antzeko proposamen bat aukeratua izan denez, hari jarraia aurkeztuko dute Udaltzarrean Bigarren Hezkuntzakoek.*

### OTEITZA LIZEOA

- Ez gara konturatzen sortzen ari garen kalteaz, ez gara kontziente itsasoko egoeraz. Beraz: **Gure proposamena da noizean behin eskoletatik hondartza garbitzera joateko txangoak burutzea. Ez da nahikoa urtean behin joatearekin.** Konpromisoa: Gure aldetik, hondartzetan pilatzen den zaborra berrerabiliz proiektuak burutzeko konpromisoa hartuko dugu.

Proposamenak eskolen artean banatu ondoren, hauek lantzeko eredia aurkeztu da, ondoko atalak jasotzen dituena:

- Proposamenaren formulazioa eta guk harturiko konpromisoa.
- Proposamenak aberasteko irudiak.

Hala, proposamenen aurkezpenera garatu ahal izango dute. Behin fitxak osatuta (digitalean edo eskuz), Arazira ([arazi@arazi.eus](mailto:arazi@arazi.eus)) **maiatzaren 23a aurretik** bidali beharko dira.

Ondoren, 2017-2018 ikasturteko Eskolako Agenda 21 proiektuan zehar izandako ekintza gustukuenak eta proposaturiko hobekuntzen inguruan galdetu zaie ikasleei, honako erantzunak eman dituztelarik. Ikasleei postit-ak luzatu zaizkie eta jarraian, bertan idatzitakoa jasotzen da:



#### Ekintza gustukuenak:

- Edukiontzia gehiago jarri eta informazio saioak.
- Gelaz gela informazioa eman eta birziklapenerako edukiontzia gehiago jarri.
- Hondartza garbitzeko txangoa.
- Patruila berdea.
- Patio garbiketa.
- Patio garbiketa.
- Bilerak, jendea ezagutu eta proposamenak egitea.
- Bideoa ikusi (plastikoak animalietan duen eragina).
- Gelaz gela informazioa eman eta birziklapenerako edukiontzia gehiago jarri.
- Informazio saioak eta jendea ezagutu. Bileran jendea ezagutu eta birziklapena bultzatzea.
- Dokumental bat ikusi.
- Bideoak ikusi.
- Bideoak ikusi.
- Everesti buruzko bideoa ikusi eta fitxa osatu.
- Bideoak ikustea.
- Bideoak ikusi eta hainbat fitxa osatu.
- Bideo bat ikusi (plastikoarena).
- Bideoak ikusi.

#### Proposaturiko hobekuntzak:

- Eskolen arteko ekintza bateratu gehiago.
- Irteera bat egin bertako egoera ezagutzeko.
- Gaiari loturiko txango bat egin.
- Ekintza gehiago egitea ikasle guztiekin.
- Egun pasa herritik gauzak aztertzeke. Astero bideo bat ikusi.
- Boligrafoak amaitutakoan, tren geltokira eraman.
- Ekintza gehiago egitea.
- Ekintza gehiago egitea birziklapenaren inguruan.
- Zerbait gehiago egitea.
- Dunetara txango bat egin bertako biodibertsitatea ikusteko.
- Herriko gauzak hobeto aztertzea.
- Ekintza gehiago Agenda 21en inguruan.
- Birziklapenaren inguruan ekintza gehiago burutu.
- Irteera bat egin.
- Eskolen arteko ekintza bateratu gehiago, proposamen gehiago bilduz eta adostuz.
- Zaborrarekin birziklatzea eta jolasak egitea.
- Beste herri batzuetara joan bertako hondakinen maila nolakoa den jakiteko.
- Ekintza gehiago egitea gai honi buruz.
- Birziklapenaren inguruan ekintza gehiago burutu.

Eskolen Arteko Foroaren beste argazki batzuk:



## I ERANSKINA: Jasotako ondorio, proposamen eta konpromisoen zerrenda gordina:

### LEHEN HEZKUNTZA

#### HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEKO

1. **Plastikozko poltsak kendu eta harizkoak edota oihalezkoak jarri.** Konpromisoa: ez dugu botako zaborra lurrera .
2. **Erosketak egiterakoan jendeak plastikozko poltsak gutxiago erabiltzeko bideak jartzea eta poltsa biodegradagarriak erabiltzea.** Konpromisoa: pakete handiak erosi eta ondoren tupperrak erabili. Adibidez, gailera poltsa indibidualak erosi ordez, pakete handiak erosi eta ondoren, tupperrak eraman ikastetxera.
3. Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugarietak plastikozkoak direla. Beraz: **plastikozko poltsen erabilera murriztea. Debekatzea. Ez ekoiztea gehiago. Ordezko poltsen erabilera sustatu kanpainen bidez. Bizilagunei erosketak egiteko ordezko poltsatxoak eskaini.** Konpromisoa: plastikozko bilgarririk gabeko produktuak kontsumitu. Bertako sasoiko produktu osasuntsuak.

#### HONDAKINAK ONDO JASOTZEKO

4. Salbide parkean errefuserako ontziak daude bakarrik eta zabor asko dago lurrean, zigarrokinak barne. Beraz: **gure proposamena salbide parkean zaborrak sailkatzeko ontziak jartzea litzateke.** Konpromisoa: hamaiketako garaian hondakin gutxiago sortzeko behin eta berriz erabili daitezkeen tupperrak, poltsak, ...etab. Erabiliko ditugu.
5. **Parkeetan (lagunak, torre luzea, villa mundakoa, salbidekoa... ) edukiontzi desberdinak jartzea eta denak elkarren ondoan.** Konpromisoa: zaborrak edukiontzi egokietara botatzera konprometitzen gara. Kaleak txukun mantenduko ditugu eta zakarrontziak gehiago erabiliko ditugu.
6. Parkeetako zaborrak bereizteko ontziak askotan beteak egoten dira. Beraz: **parkeetako zakarrak bereizteko ontzi hauek maizago hustea proposatzen dugu.** Konpromisoa: gure aldetik, zaborrik lurrera ez botatzeko eta dagokion ontzian uzteko konpromisoa hartzen dugu. Eskolara ekartzen dugun hamaiketakoak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko saiakera ere egingo dugu.
7. Sortzen diren hondakin guztiak ongi sailkatzearen garrantziaz jabetu gara. Beraz: **gure proposamena hondakin sailkapena areagotzea da, bai eskolan, etxean edo herrian.** Konpromisoa: plastikozko erabili beharrean kristal gehiago erabiltzea izango da.

#### HERRITARREI AZALTZEKO

8. Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugarietak plastikozkoak direla. Beraz: **ikastetxeetan eta komunikabideetan, oro har, plastikozko poltsen ordezkoak erabiltzeko beharra jakinarazi.** Konpromisoa: oihalezko poltsak, erosketa orga... Erabili gure erosketetan.
9. Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugarietak plastikozkoak direla. Beraz: **bizilagunak plastikozko poltsen arazoak kontzientziatu.** Konpromisoa: hamaiketakoak, gailera etab... Plastikozko bilgarririk gabekoak kontsumitu. Frutaren kontsumoa areagotu.

10. Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugariak plastikoa direla. Beraz: **sentsibilizazio kanpaina gehiago egin (hondartza, mendia garbitu...)**. Konpromisoa: ogitartekoak biltzeko aluminiozko papera ez dugu erabiliko. Oihalezko poltsatxoak erabiliko ditugu (bokanrola).
11. Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugariak plastikoa direla. Beraz: **birziklatzearen beharra aldarrikatu komunikabideetan gizarteak kontzientzia har dezan**. Konpromisoa: ontzi arinak eta plastikozko poltsak birziklatu egingo ditugu.

#### **BESTE BATZUK**

12. Hondakinek osasuna eta natura arriskuan jartzen dute. Beraz: **gure proposamena da konposta botatzeko txartelak edozein ontzi irekitzeko balio izatea**. Konpromisoa: hondakinak ondo sailkatzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen dugu.
13. Denok sortzen ditugu hondakinak. Ondorioz, denon ardura izango da gai honetan aurrera pausoak ematea. Beraz: **zergak murriztu birziklatzen dutenei**. Konpromisoa: oihalezko poltsak erabili erosketak egiterakoan.
14. **Herriko berdeguneak mantentzea**. Konpromisoak: ondo birziklatuko dugu. Gauza bakoitza dagokion edukiontzira botako dugu.
15. **Iristen ez direnentzat (sila gurgildunetan dabiltzanak, haurrak...) zaborontzi egokiak jartzea**. **Konpromisoa:** berrerabili ezin daitekeena zaborra izango da, baina ondo sailkatuko dugu birziklatu ahal izateko: organikoa, paper eta kartoia, beira, olio, ontzi arinak, pilak...

#### **ESKOLAN EDO NORBERAK EGITEKOAK**

16. Ikastetxeko patioan zabor asko dago lurretik botata. Beraz: **gure proposamena eskolako pasilloetan organikoaren ontziak jartzea litzateke**. Konpromisoa: zabor gutxiago sortzen saiatu eta ondoren zaborrak ongi sailkatzea izango da.
17. Uste genuen baino zabor gehiago sortzen dugu eta produktu bakoitza sortu edo ekoizteko prozesuaz ez ginen jabe. Beraz: **gure proposamena eskolan hondakin organikoak sailkatzeko ontziak gehitzea da, esaterako, pasillo eta geletan**. Konpromisoa: eskolan zein etxean ardura txikiak hartzea izango da hondakinen sailkapena areagotzeko.
18. Hondakin asko sortzen dugu, gehienak ontzi arinen motatakoak. Gainera, hondakin mota hau oso kutsatzailea da. Beraz: **ahalik eta plastiko gutxien dituzten janariak erostea da**. Konpromisoa: gurasoei gure proposamenak kontatzea.
19. Hamaiketakoa plastikoa bilduta ekartzen dugu, gehienetan, eta ontzi horiak betetzen zaizkigu. Beraz: **hamaiketakoa tuperrean edo berrerabili daitezkeen zorroetan ekartzea proposatzen dugu, eta baita bilduki gutxien duten produktuak erostea ere**. Konpromisoa: hamaiketakoa berrerabiltzeko zorroetan ekartzera: tuperretan, paperean bilduta...

\*Gainera, komentatzeko:

Itsasoa kutsatzen dugu eta animaliak hiltzen dira. (...). Gure **konpromisoa** erosketak egiterakoan gure poltsak, tuperak, etab... eramatea izango da.



## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

### HONDAKINEN SAILKAPENA

20. Urtetik urtera sailkatze tasak handitu egin dira, baina hala ere oraindik sailkatzen ez duen jende asko dago. Beraz: **Gure proposamena da sailkatze ontzi gehiago edukitzea eskura**. Konpromisoa: Gure aldetik konprometitzen gara lurrera hondakinak ez botatzera eta lurrean daudenak jasotzera.
21. Erosketak egiteko momentuan edukiontzi gehiegi ematen dizkigute. Beraz: **Gure proposamena da Garbigunera eraman beharreko objektu txikiak jasotzeko lekuren bat jartzea herri barnean (CD, toner, bonbilla...)**. Konprometitzen gara gure familiak informatzera eta etxean birziklapena bultzatzera.
22. Erraustegi bat eraikitzen ari dira gure etxe alboan. Orduan eta zabor gutxiago bota errefusera, orduan eta gutxiago erraustuko da. Beraz: **Gure proposamena da jendeak ez badu birziklatzen, isunen bidez zigortu beharko dela. Zabor ontzien inguruan udaltzaingoak ezarri eta gaizki bereizten duenari isuna jartzea ere proposatzen dugu**. Konpromisoa: Guk ere gaizki birziklatzen ikusten dugunari zuzentzeko konpromisoa hartuko dugu.
23. **Birziklatze eta berrerabiltzeagatik saritzea eta egiten ez duenari zigorra jartzea proposatzen dugu**. Konpromisoa: Gure aldetik, hondakinak egoki sailkatzen saiatzera konprometitzen gara.
24. **Garbigune eta birziklatze etxola gehiago jartzea proposatzen dugu**. Konpromisoa: Gure aldetik, hondakin gutxiago sortzen saiatzera konprometitzen gara.
25. **Gaikako bilketa zorroztasunez eramatea eta kalean gaika sailkatzeko zaborrontziak jartzea proposatzen dugu**. Konpromisoa: Edukiontzi desberdinak gehiago errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu.
26. **Gaika sailkatzeko, herritarrei erraztasunak eta baliabideak jartzea proposatzen dugu, eta enpresei, bildukin zein ontziratze arauak jartzea**. Konpromisoa: Gure aldetik, hondakinak gaika sailkatzeko interes gehiago jartzeko konpromisoa hartzen dugu, esaterako, etxean zaborrontzi antolaketa egokia eginez.
27. Hondakin asko sortzen ditugu jendearen utzikeriagatik. Beraz: **Gure proposamena da birziklatzea derrigorrezkoa izatea eta hondakinak lurrera botatzen dutenei isunak jartzea. Beste herrialde batzuetan bezala, birziklatzen dutenei zergak jaiste ere proposatzen dugu**. Gure aldetik, bakoitzak gure arduraren eta gauzak berrerabiltzen saiatzeko konpromisoa hartzen dugu.
28. Ekosistemak ez suntsitzeko gehiago birziklatu eta mundua gehiago zaindu behar dugu. Beraz: **Horretarako, hondakinak edukiontzi gehiago jartzea proposatzen dugu. Bestetik, baita ontzi arinen kuboaren zuloa handiagoa izatea edo ontzi arinen truke dirua jasotzea ere**. Konpromisoa: Gure aldetik, hondakinak ondo banatzeko eta bakoitza bere edukiontzian botatzeko konpromisoa hartzen dugu. Ikastetxean idazteko tresnen bilketa egiteko konpromisoa ere hartzen dugu jendeari laguntzeko.
29. Geroz eta hondakin gehiago sortzen dugu. Beraz: **Horregatik, gure proposamena da birziklatzeko beharra gogorarazteko atari eta enpresa guztietan kartelak jartzea**. Konpromisoa: Gure aldetik, etxeko birziklatzea era egokian egiten laguntzeko eta arduraren horretan guk ere parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Baita ahal denean gauzak berrerabiltzeko ere.

### HONDAKIN GUTXIAGO SORTU ETA BERRERABILPENA BULTZATU

30. Gehiegi kontsumitzen dugu, hondakin gehiegi sortzen ditugu eta ez gara horretaz kontziente. Beraz: **Gure proposamena da udaletxeek eta gobernuek hondakinak sailkatzeko eta birziklatzeko baliabideak jartzea**. Konpromisoa: Gure konpromisoa gutxiago kontsumitu eta ondoren hondakinak ongi sailkatzea izango da.
31. Ez gara konturatzen sortzen ari garen kalteaz, ez gara kontziente itsasoko egoeraz. Beraz: **Gure proposamena da noizean behin eskoletatik hondartza garbitzera joateko txangoak burutzea. Ez da nahikoa urtean behin joatearekin**. Konpromisoa: Gure aldetik, hondartzetan pilatzen den zaborra berrerabiliz proiektuak burutzeko konpromisoa hartuko dugu.
32. Produktuak gutxiegi berrerabiltzen dira eta ondorioz zabor gehiegi sortzen dugu. Beraz: **Horren aurrean, guk bigarren eskuko denden aldeko apustua egitea proposatzen dugu. Bigarren eskuko liburu azoka, arropa azoka, altzari azoka, mugikortasun azoka...** Konpromisoa: Bestetik, ikastetxean bigarren eskuko liburuen azoka egitera konprometitzen gara, hurrengo belaunaldiak gure testu liburuen aprobetxatu ditzaten.

33. **Berrerabili ezin diren materialak ez ekoizteko irtenbideak aurkeztea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Gure aldetik, materiala gehiago berrerabiltzen saiatzeko konpromisoa hartzen dugu, esaterako, erabilitako arropa edo jostailuak aprobetxatuz.
34. **Kudeaketa- sistema egokiak eta eraginkorrak erabiltzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Erosketak egiterakoan plastiko poltsak erabili beharrean berrerabili daitezkeen poltsak erabiltzeko konpromisoa ere hartzen dugu.
35. Hondakin kopurua murriztu egin behar da. Beraz: **Horretarako, herriko erosketetan oihalezko poltsak banatzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Gure aldetik, hamaiketarako aluminiozko eta plastikozko poltsen ordez, kantinplora eta tuperrak erabiltzera konprometitzen gara.
36. Enpresek material eta produktu berrerabiliak erabili beharko lituzketela uste dugu. Beraz: **Horretarako, plastikoen ordez beste materialak sortzea proposatzen dugu biodegradagarriak direnak.** Konpromisoa: Gure aldetik, material biodegradagarri edo berrerabiliekin egindako produktuak erostera konprometitzen gara.
37. Arazo handiena supermerkatuetan dago saltzeko orduan ontzi asko erabiltzen direlako. Beraz: **Gure proposamena da, supermerkatuetan produktuak biltzerakoan, plastiko eta kartoi gutxiago erabiltzea eta produktuen ontziraketa murriztea.** Konpromisoa: Gure aldetik, hondakin gutxi sortzen dituzten produktuak erostera eta poltsa kopurua murriztera, zein erosketak egiterakoan gurditxoak eta oihalezko poltsak erabiltzera konprometitzen gara.
38. **Dendetan eta supermerkatuetan plastikozko poltsarik ez eman, bakarrik berrerabiltzeko modukoak saldu.** Konpromisoa: Erosketak egitera joaten garenean, poltsa etxetik eraman.
39. **Ekoizleei eskatu plastiko gutxiago erabiltzeko haien produktuak salmentan jartzerako orduan.** Konpromisoa: Etxe bakoitzean hondakinak murrizteko kontzientzia zabaldu, bereziki plastikorik ez duten produktuak erosi.

#### **KONTZIENTZIAZIOA ETA EKIMENAK**

40. Planeta zaintzen ez badugu gure ondorengoek ez dute bizi kalitate duina edukiko. Beraz: **gure proposamena da kontzientziazioa burutzea herri mailan, eskoletan, enpresetan nahiz merkataritzan.** Konpromisoa: Gure aldetik, eskolan ahal dugun guztia birziklatzeko konpromisoa hartuko dugu.
41. **Kontzientziazio kanpainak egitea proposatzen dugu herri bakoitzean, jendea informatu eta identifikatutako arazoei irtenbidea aurkitzeko.** Konpromisoa: Gure aldetik, bildukin asko ekartzen duten eta erabili eta bota egiten diren produktuak saihestera konprometitzen gara.
42. **Gehiegizko kontsumoa murrizte aldera, kontsumo eredia aldatzeko jarraibideak bultzatu eta hondakinek sortutako arazoak plazaratzea proposatzen dugu.** Gure aldetik, kontsumo-ohiturak aldatzen saiatzera konprometitzen gara, esaterako, berrerabili ezin diren materialak ez erositik edo komuna zaborrontzi bezala ez erabiliz.
43. Gure esku dago Lurra zaintzea eta hondakin gutxiago sortzea. Beraz: **Horretaz jabetzeko, kontzientziazio eta informazio kanpaina gehiago egitea proposatzen dugu. Besteak beste, umeei erakustea ekologistagoak izaten eta ingurumena gehiago zaintzen.** Konpromisoa: Gure aldetik, jendeari gehiago birziklatu behar dutela esatera konprometitzen gara.
44. **Plastikoen eragiten dituzten kalteak erakusteko kanpaina gehiago egitea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Gure aldetik, kaleko zakarrontziak gehiago erabiltzera konprometitzen gara, baita baztertu ditugun tresna elektronikoak "puntu garbietara" edo garbi guneetara eramatera ere.
45. **Bigarren eskuko produktuak erabili ahal izateko, bigarren eskuko azokak antolatu eta bideratu.** Konpromisoa: Arreta gehiago jarriko dugu edukian, ontzian baino. Erabili eta bota egiten diren produktuak saihestuko ditugu.
46. **Erosi aurretik, norbere beharrak aztertu behar direnez eta behar dena bakarrik erosteko erosketaz-zerrenda egitea komeni denez, udaletxeak eginkizun hau bultzako lukeen koadernotxoak familietan banatzea kontzientziatu eta ohitura hau finkatzeko.** Konpromisoa: Erosketak egiteko orduan, etxetik eramango dugu gure poltsa.

\*Gainera:

Gure erruz lurra gaitzen ari da. Konpromisoa: Gure konpromisoa ingurukoengan kontzientzia sortzen saiatzea izango da, esaterako, plastiko poltsak gutxitzeko.

## II ERANSKINA: Behin aukeraturiko proposamen guztiak aztertuta eta errepikapenak ekiditeko helburuarekin, Udaltzarrean aurkeztuko diren proposamenak zehaztu dira. Ikus:

### UDALBATZARREAN AURKEZTUKO DEN PROPOSAMEN ZERRENDA

#### 1. PROPOSAMENA:

Antoniano Ikastetxea, Lehen Hezkuntza:

Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugariak plastikoak direla. Beraz: **plastikozko poltsen erabilera murriztea. Debekatzea. Ez ekoiztea gehiago. Ordezko poltsen erabilera sustatu kanpainen bidez. Bizilagunei erosketak egiteko ordezko poltsatxoak eskaini.** Konpromisoa: plastikozko bilgarririk gabeko produktuak kontsumitu. Bertako sasoiko produktu osasuntsuak.

Antoniano Ikastetxea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

Hondakin kopurua murriztu egin behar da. Beraz: **Horretarako, herriko erosketetan oihalezko poltsak banatzea proposatzen dugu.** Konpromisoa: Gure aldetik, hamaiketarako aluminiozko eta plastikozko poltsen ordez, kantiplora eta tuperrak erabiltzera konprometitzen gara.

*\*Lehen Hezkuntzan ere antzeko proposamen bat aukeratua izan denez, hari jarraika aurkeztuko dute Udaltzarrean Bigarren Hezkuntzakoek.*

#### 2. PROPOSAMENA:

La Salle Ikastetxea, Lehen Hezkuntza:

Hondartzan ikusten den zaborra aztertu ondoren konturatu gara ageri diren hondakin ugariak plastikoak direla. Beraz: **sentsibilizazio kanpaina gehiago egin.** Esaterako, **hondartza eta mendia garbitu, eta birziklatzearen beharra aldarrikatu komunikabideetan gizarteak kontzientzia har dezan.** Konpromisoa: ogitartekoak biltzeko aluminiozko papera ez dugu erabiliko. Oihalezko poltsatxoak erabiliko ditugu (bokanrola). Ontzi arinak eta plastikozko poltsak birziklatu egingo ditugu.

Salbatore Mitxelena Ikastola, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

Planeta zaintzen ez badugu gure ondorengoek ez dute bizi kalitate duina edukiko. Beraz: **gure proposamena da kontzientzia burutzea herri mailan, eskoletan, enpresetan nahiz merkataritzan.** Konpromisoa: Gure aldetik, eskolan ahal dugun guztia birziklatzeko konpromisoa hartuko dugu.

*\*Lehen Hezkuntzan ere antzeko proposamen bat aukeratua izan denez, hari jarraika aurkeztuko dute Udaltzarrean Bigarren Hezkuntzakoek.*

### 3. PROPOSAMENA:

Orokieta Herri Eskola, Lehen Hezkuntza:

Parkeetako zaborrak bereizteko ontziak askotan beteak egoten dira. Beraz: **parkeetako zakarrak bereizteko ontzi hauek maizago hustea proposatzen dugu**. Bestetik, **parkeetan (Lagunak, Torre Luzea, Villa Mundakoa, Salbidekoa... ) edukiontzi desberdinak jartzea eta denak elkarren ondoan**. Konpromisoa: gure aldetik, zaborrik lurrera ez botatzeko eta dagokion ontzian uzteko konpromisoa hartzen dugu. Eskolara ekartzen dugun hamaiketakoak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko saiakera ere egingo dugu. Zaborrak edukiontzi egokietara botatzera konprometitzen gara. Kaleak txukun mantenduko ditugu eta zakarrontziak gehiago erabiliko ditugu.

### 4. PROPOSAMENA:

Salbatore Mitxelena Ikastola, Lehen Hezkuntza:

Denok sortzen ditugu hondakinak. Ondorioz, denon ardura izango da gai honetan aurrera pausoak ematea. Beraz: **zergak murriztu birziklatzen dutenei**. Konpromisoa: oihalezko poltsak erabili erosketak egiterakoan.

Lizardi Institutua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

Hondakin asko sortzen ditugu jendearen utzikeriagatik. Beraz: **Gure proposamena da birziklatzea derrigorrezkoa izatea eta hondakinak lurrera botatzen dutenei isunak jartzea. Beste herrialde batzuetan bezala, birziklatzen dutenei zergak jaitea ere proposatzen dugu**. Gure aldetik, bakoitzak gure ardura eta gauzak berrerabiltzen saiatzeko konpromisoa hartzen dugu.

*\*Lehen Hezkuntzan ere antzeko proposamen bat aukeratua izan denez, hari jarraika aurkeztuko dute Udaltzarrean Bigarren Hezkuntzakoek.*

### 5. PROPOSAMENA:

La Salle Ikastetxea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

Erosketak egiteko momentuan edukiontzi gehiegi ematen dizkigute. Beraz: **Gure proposamena da Garbigunera eraman beharreko objektu txikiak jasotzeko lekuren bat jartzea herri barnean (CD, toner, bonbilla...)**. Konprometitzen gara gure familiak informatzera eta etxean birziklapena bultzatzera.

### 6. PROPOSAMENA:

Oteitza Lizeoa, Bigarren Hezkuntza:

Ez gara konturatzen sortzen ari garen kalteaz, ez gara kontziente itsasoko egoeraz. Beraz: **Gure proposamena da noizean behin eskoletatik hondartzak garbitzera joateko txangoak burutzea. Ez da nahikoa urtean behin joatearekin**. Konpromisoa: Gure aldetik, hondartzetan pilatzen den zaborra berrerabiliz proiektuak burutzeko konpromisoa hartuko dugu.